



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO MARTXOAREN 17AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesús Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Juan Luis Cid Conde
Eleuterio Sanchez Garcia
Maria Cristina Goya Amiama
Victoria Rodriguez Feloaga

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, bi mila eta hamaseiko martxoaren hamazapian arratsaldeko seiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrakusten ez den gai 1 sartzea proposatzen du. Honako gai hau proposatzen du:

- Baso kudeaketarako baserri bide eta baso-bideen erabilera lizentzien inguruko fitxategiaren sorrera

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: 2016ko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea honako gai honen azterketa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Baso kudeaketarako baseri bide eta baso-bideen erabilera lizentzien inguruko fitxategiaren sorrera

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2016ko urtarrilaren 28an egindako ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena.**
- 2.- 18/2016tik 65/2016ra alkate dekretuak jakinaraztea**
- 3.- 2016-2019 bitarteko urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoaren onarpena**
- 4.- Eusko Jaurlaritzari Polizi Gorputza eratzeko eskaera onartzea Udalbatzak**
- 5.- II. AASSen bigarren aldaketaren haserako onarpena**
- 6.- Baso kudeaketarako baserri bide eta baso-bideen erabilera lizentzien inguruko fitxategiaren sorrera**
- 7.- Galde-erreguak**

LEHENENGOA:

2016KO URTARRILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA:

18/2016TIK 65/2016RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2016ko urtarrilaren 28tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 18/2016tik 65/2016ra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

18:05ak direnean Maria Cristina Goya Amiama zinegotzia bertaratzen da Udalbatzan.

HIRUGARRENA:

2016-2019 BITARTEKO URTEETARAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARPENA

2016-2019 urte bitarterako Ibarra Udalak emago dituen diru-laguntzen plan estrategikoa aurkezten du Alkateak Udalbatzak onar dezan

EAJko zinegotzi den Itziar Jauregi Ugarte andreak galdetzen du non landu den plan honen zatiketa edo diru-laguntza horien banaketa.

Alkateak hitza hartu eta adierazten du teknikari bakoitzak artero egiten diren diru-laguntzen banaketaren arabera egin dutela zatiketaren taula. 3 bilera egin ondoren azken lana aurkezten dela Udalbatza honetan, baina funtsean urtero egiten diren banaketaren arabera egin direla.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Alkateak Udalbatzari aurkezten dion 2016-2019 urte bitarterako Ibarra Udalak emango dituen diru-laguntzen plan estrategikoa (I.eranskinean jaso)

BIGARRENGOA: Argitaratu 2016-2019 urte bitarterako Ibarra Udalak emango dituen diru-laguntzen plan estrategikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

I.ERANSKINA

IBARRAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZETARAKO PLAN ESTRATEGIKOA.

ATARIKOA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Oinarrizko izaera du azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1. artikulua, beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten Udal guztiek dute Diru-laguntzetarako Plan Estrategikoa onartu beharra.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzetarako Lege Orokorrak, beste urrats bat gehiago ematen du sistema ekonomikoaren hobekuntzan eta arrazionalizazioan. Legea sustraitzen duen printzipioetako bat gardentasunarena da, eta horrek, Legean hezuramaitzen diren beste baliabide askorekin batera, bere baitan dakar diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun maila zuzenean igotzea.

Alde horretatik esan behar dena da merkatuari eragin liezaioketen distortsioak eta interferentziak kentzeko modua egongo dela diru-laguntzen inguruko informazio gehiago edukiz gero eta, horrezaz gain, Administrazio Publiko guztietako jardueren koherentzia eta osagarritasuna erraztu eta mota guztietako teilakatzeak galaraziko lirarteke.

Legediak berak dio Diru-laguntzetarako Plan Estrategiko bat egin behar dela eraginkortasuna hobetzarren, urte anitzeko Plana, Udaltzako egin ditzakeen lankidetzak-hitzarmenak egiten edo diru-laguntzak ematen hasi baino lehenago egin beharrekoa; Diru-laguntzetarako Ordenantza Orokorrak aurreikusitako terminoetan egin ere.

2013ko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 108. zenbakian argitaraturik dagoen Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren baitan diru-laguntza hauek emateko baldintza eta prozedura jarraituko da.

Horregatik onartzen du udal honek Diru-laguntzetarako Plan Estrategikoa. Hona hemen Plan horren atal multzoa:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

- 1. ARTIKULUA.** Udal honek 2016-2019 aldiaren xedatuko dituen diru-laguntza guztiak lotuta geratuko dira honako Plan honetan ezarritakoari.
- 2. ARTIKULUA.** Plan honetan ezarritako diru-laguntzak benetan xedatzeak eskatzen duena da: urte bakoitzeko udal Aurrekontuetan diru-laguntza horiei dagozkien diru-izendapenak egitea eta diru-laguntzok emateko oinarri arautzaileak onartzea.
- 3. ARTIKULUA.** Diru-laguntzak xedatzea aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzearen menpe dago, beraz, helburu horietara moldatu edo egokituko dira une bakoitzean aurrekontuetan onar daitezkeen diru-izendapenak eta diru-laguntzok emateko oinarri arautzaileak edo/eta deialdiak ere.
- 4. ARTIKULUA.** Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du esan nahi inongo eskubiderik sortzen denik onuradun izan litezkeen alde; halako moldez, non ezingo duten inongo kalteordainik edo konpentsaziorik eskatu Planak dioena gauzatzeko ez bada.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK ETA DIRU-LAGUNTZA ALORRAK

- 5. ARTIKULUA.** Erabilgarritasun publikoko edo gizarte-intereseko ekimenak egin daitezkeen bultzatzea edo toki-espumenari egozten zaizkion helburu publikoak lor daitezkeen sustatzea helburutzat hartuta, udalak diru-laguntzak emango dizkie norbanakoei, elkartei edo entitate pribatuei.
- 6. ARTIKULUA.** Udalak, urtero, Plan honen Eranskinean adierazten diren alor horietarako emango ditu diru-laguntzak.

III. KAPITULUA. PLANAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7. ARTIKULUA. UDAL KONTU-HARTZAILEAK egingo du Plan honen finantza-kontrola, plana indarrean dagoen aldi guzti horretan.

8. ARTIKULUA. Planaren indarraldia amaitu ondoren eta hurrengo egiten hasi aurretik, diru-laguntza lerro ezberdinak sustatzen dituzten sailtako arduradunek Memoria bat aurkeztu behar diote diru-laguntzak ematen dituen organoari; eta Memoria horretan, gutxiarik, hauxe islatuko dute: Planaren betetze-maila; lortu nahi ziren helburuak eta ondorioak lortzeko diru-laguntza emateak izan duen eraginkortasuna; eta, azkenik, ondorioak. Baita hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak egin ere.

Ibarran 2016ko martxoaren 17an
ALKATEAK

KULTURA ETA GAZTERIA ALORREKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: KULTURA ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK	URTEKO KOSTUA	FINANTZIAKETA	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA
URTEKO JARDUERA PROGRAMA	Udalerriko kultur jarduerak eta Kultur elkarten jarduna sustatzea	Herriko erakundeen urteko programazioak aurrera eramatea	20.000 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Norgehiagoka
NEKAZARITZA GARAPENA. "IBARRA, AZOKA ETA PIPARRA"	Udalerriko nekazaritza, abelzaintza sustatzea.	Herriko ekoizle, artisau eta ganaduzaleen lanak ezagutaraztea	11.500 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Izenduna
URTEKO JARDUERA PROGRAMA. SAN BARTOLOME PARROKIA	Elizak aurrera eramaten dituen ekimenetan parte hartzea sustatzea	Antolatzen dituen jarduerak modu egokian egitea	2.000 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Izenduna
URTEKO JARDUERA PROGRAMA. ALURR DANTZA TALDEA	Euskal dantzaren inguruan udalerrian antolatzen diren jarduerak babestea.	Herriko jaietan, nahiz urten zehar emanaldiak egitea. Dantza eskola bidez herriko haurrei dantzak erakustea	3.200 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Izenduna
PIPARRAREN SUSTAPENA	Herriko ezaugarri den piparra sustatzea	Piperra herrian eta kanpora begira ezagutaraztea. Ekimen berriak egitea	7.000 €	Finantziaketa funts propioekin	Norgehiagoka
URTEKO JARDUERA PROGRAMA	Udalerrian gazteentzat antolatzen diren jarduerak babestea	Herriko gazteen ekimenak eta jarduerak aurrera eramatea	6.000€	Finantziaketa funts propioekin	Izenduna edo norgehiagoka



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

EUSKARAREN NORMALIZAZIOARAKO EUSKARA ARLOTIK BIDERETUTAKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: EUSKARA SAILA					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK	URTEKO KOSTUA	FINANTZIAKETA	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA
XEDEA: ESKUALDEAK EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK IZATEA. ONURADUNAK: TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA SM, TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL.	Eskualdean euskaraz ari diren komunikabideak sendotzea	- Euskaraz komunikabide bat produzitzeak kostatzen duena murriztea - Euskara sustatzea eskualdean	22.000 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Norgehiagoka
XEDEA: IBARRAKO BIZILAGUNAK EUSKARA IKASTAROETAN PARTE HARTZERA BULTZATZEA. ONURADUNAK: IBARRAN ERROLDATUTAKO HERRITARRAK	Euskara ikasi nahi dutenei matrikula-kostua murriztea.	Euskaltegiak ez izatea euskaraz ikasteko.	6.000 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Norgehiagoka
XEDEA: ETORKINEK EUSKARA HITZ EGITEN JARRAI DEZATELA UDARAN. ONURADUNAK: IKASTAROA HASI BAINO GUTXIENEZ SEI HILABETE LEHENAGOTIK IBARRAN ERROLDATUTAKO HERRITARRAK.	Ikastetxeetan ikasten ari diren etorkinek euskara ez galtzea.	Euskara ikasi duten etorkinek ez dezatela euskara galdu oporraldi garaian.	500 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Norgehiagoka
XEDEA: HERRIKO ESTABLEZIMENDUETAKO IRUDI LINGUISTIKOA EUSKARAZ JARTZEKO LAGUNTZA EMATEA. ONURADUNAK: HERRIKO MERKATARI, OSTALARI ETA DENDARIAK	Euskararen presentzia handitzea herriko paisaian.	Euskarazko erroteru kopurua handitzea	500 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Norgehiagoka
XEDEA: D EREDUKO IKASTETXEAK SUSTATZEA. ONURADURA: D EREDUA SUSTATZEKO FESTAK	D ereduko ikastetxeak funts ekonomikoak lortzeko antolatzen dituzten festak laguntzea.	D ereduko ikastetxeetako festak indartzea	4.400€	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. kapituluaren kontura	Norgehiagoka
XEDEA: EUSKALGINTZAKO AGENTEAK SENDOTZEA. ONURADUNAK: BEHATOKIA, KONTSEILUA, GALTZAUNDI, SORTZEN	Euskalgintzan lan egiten duten elkarteak ekonomikoki sendotzea.	Euskalgintzan lan egiten duten elkarteek aurrera egin dezatela.	3.000 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Norgehiagoka



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ELKARTEA, BAI EUSKAL HERRIARI,...					
XEDEA: EUSKARAZKO AISIA INDARTZEA ONURADUNA: HERRIKO AISIALDI TALDEA	Herriko aisia euskalduna izatea	Herriko aisialdi taldea indartzea	4.500 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapituluaren kontura	Izenduna
XEDEA: PUBLIKO ZABALARI INTERESGARRI GERTA DAKIOKEEN EDOZEIN INFORMAZIO EUSKARAZ ETA INFORMAZIO TEKNOLOGIEN BIDEZ HEDATZEKO DIRU-LAGUNTZA. ONURADUNA: HERRIKO KULTUR-ERAGILEAK, KIROL-ERAGILEAK, AISIALDI-ERAGILEAK, ENPRESAK, MERKATARIAK ETA OSTALARIAK	Euskarari presentzia ematea interneten	Euskarazko web orriek ibarrako produktuak euskaraz sal ditzatela.	500 €	Finantzazio funts propioekin, IV. Kapituluaren kontura.	Norgehiagoka

HEZKUNTZA ARLOTIK BIDERETUTAKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: HEZKUNTZA SAILA

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK	URTEKO KOSTUA	FINANTZIAKETA	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA
XEDEA: HERRIAN JAIOTAKO NESKA-MUTILEK HERRIAN IKASTEA. ONURADUNAK: UZTURPE IKASTOLA.	Herrian hezteak duen kostua murriztea.	- Ibarren jaiotakoak ibarran hezteko aukera izatea. - Herrian hazitakoak herrian hezi daitezela.	120.000 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapituluaren kontura	Izenduna
XEDEA: FAMILIA BIZITZA ETA LAN-BIZITZA UZTARTZEA.	Haur eskolako matrikula merketzea.	- Gurasoen lan bizitza eta familia bizitza uztartzen laguntzea. - Haur eskolako	14.000€	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapituluaren kontura	Norgehiagoka



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ONURADUNAK: 0-2 URTE ARTEKO NESKA-MUTILEN GURASOAK		matrikulazioak handitzea			
XEDEA: HAUR ESKOLAREN JANGELA ZERBITZUA BERMATZEA. ONURADUNAK: IBARRAKO HAUR ESKOLAKO GURASO ELKARTEA.	Haur eskolan bazkaltzen gelditzen direnei kostua murriztea	- Bazkariaren kalitatea bermatzea. - Haur eskolako jangelak neska-mutil gehiago geratzea	5.000 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Izenduna
XEDEA: HERRITARREI MUSIKA FORMAZIOA EMATEA. ONURADUNAK: IBARRAKO HERRITARRAK	Herrian musika ikasketak egin ahal izatea bermatzea.	- Eskualdeko musika ikasketak indartzea. - Herrikoek herrian ikasi ahal izatea musika.	63.000 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Izenduna (Mankomunatua Loatzo)

KIROL ARLOTIK BIDERETUTAKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: KIROL SAILA

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK	URTEKO KOSTUA	FINANTZIAKETA	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA
XEDEA: HERRIAN LAN EGITEN DUTEN KIROL ELKARTEEN URTEKO PROGRAMAK ETA PROGRAMA ZEHATZAK LAGUNTZEA. . ONURADUNAK: HERRIKO ELKARTEAK. KIROL	Kirola indartzea herrian.	Herriko kirol elkarrekin aurrera egin dezatela.	37.800 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Izenduna
XEDEA: ESKOLA KIROLA INDARTZEA ONURADUNAK: ESKOLA KIROLEAN DABILTZAN NESKA- MUTILAK	Eskola kirola indartzea neska- mutilen artean.	Eskola kirolean ahalik eta neska- mutil gehiagok parte hartzea	3.800 €	Finantzazio funts propioekin, udalaren IV. Kapitulua kontura	Izenduna



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

GIZARTE EKINTZA ALORREKO DIRU-LAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: GIZARTE POLITIKA					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN EMAITZAK	URTEKO KOSTUA	FINANTZIAKETA	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA
<u>XEDEA</u> URTEKO JARDUERA PROGRAMA. BIZI-NAHI <u>ONURATUAK</u> JUBILATUEN ETXEA	Pertsona nagusien parte hartzea eta integrazioa sustatzea Pertsona nagusiei gauzak egiteko gogoia piztea Pertsona nagusien arteko hartu emananak eta elkarbizitza sustatzea.	Jubilatu etxetako bazkide diren pertsona nagusiek parte har dezatela etxeak antolatutako jarduerara gehienetan.	9.000 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Izenduna
<u>XEDEA</u> GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEKO EKINTZAK <u>ONURATUAK</u>	Emakumearen sustapenera zuzendutako jarduerara gehiago izatea, emakumearen bizitzako alderdi guztietan berdintasuna lortzearen.	Ibarrako Emakume eta gizonen berdintasunerako I. Plana diseinatu.	10.658,40 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da EMAKUNDEri diru laguntza eskatu zaio	Norgehiagoka.
<u>XEDEA</u> GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA <u>ONURATUAK:</u> GARAPENERAKO LANKIDETZA PROGRAMAK ANTOLATU ETA GARATZEN DITUZTEN ELKARTE ETA ERAKUNDEAK	Garapenerako lankidetzaren programak antolatu eta garatzeko Gobernu kanpoko erakundeetara edo GKEi dirulaguntzak ematea, munduan garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleriaren egoera sozioekonomikoa hobetzeko eta dauden desberdintasunak gaitzetzeko	Laguntza jasotzen duten herrialdeetako toki garapena eta sendotzea. Iparraren eta hegoalren artean dauden ezberdintasunak gaitzetzeko. Saharako herrialdearekin sinatuta dagoen sendotze programa sendotzea	20.000 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Izenduna
<u>XEDEA</u> GIZARTE EKINTZA ALORREKO ELKARTEGINTZA SUSTATZEKO <u>ONURATUAK</u> GIZARTE EKINTZETAN LANEAN DAUDEN	Gizarte ekintzan ari diren elkarrekin lana sustatzea	Gizarte ekintzan ari diren elkarrekin dirulaguntza ematea beraien lana sustatzeko	3.000 €	Finantziaketa funts propioekin egingo da	Izenduna



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ELKARTEAK					
XEDEA LARRIALDITARAKO LAGUNTZAK ONURATUAK: BALIABIDE URRIKO PERTSONAK	Baliabideko urriko pertsonen egoera ekonomikoa leuntzea	Diru laguntza puntualak egoera ekonomiko larriak leuntzeko	50.000 €	Finantziaketa funts propioekin eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin egingo da	Ebaluazio bakoiztua.

LAUGARRENA:

ESKUSO JAURLARITZARI POLIZI GORPUTZA ERATZEKO ESKAERA ONARTZEA

Mikel Agirrezabala Ezkurdiak Alkate jaunak honakoa adierazten du:

Ibarrako Udalean egin diren azken azterketak: Agenda 21 eko ekintza plana (2014-2022), Mugikortasun plana (2009), Enea eta Ikertalde egindako Ibarrako Iraunkortasun diagnostikoa (2014), Tolosako area funtzionala Lurralde Zatikako Planetik aztertuta (2013) eta Oria Ertzain-Etxearen arduradunaren txostena kontutan izanik beharrezkoa da Ibarra Udaltzaingo zerbitzu bat eratzea. Udal Funtzionamendua eraginkorra izateko; legea betearazteko eskumenean dauden gabeziak ekiditeko; udal ordenantzen betearaztea bermatzeko eta udal plantilan dagoen pertsonalak egun betetzen dituzten polizia lanak bideratzeko udaltzaingo zerbitzua beharrezkoa dela ikusi da.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 legeak haxe dio “de las Policías Locales” izenburuko V. tituluan 5.000 bizilagunetik beherako herriek bere polizia taldeak sortu ahal izango dituztela, salbuespenezko kasuetan, benetan behar edo komeni izanez gero. Kasu hauetan, Eusko Jaurlaritzaren alde aurretiko baimena beharko da. Edozein kasutan, udalkideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da herriko polizi gorputz bat sortzeko.

Aurkezten den txostenean argi uzten da salbuespenezko kasu bat dela eta egun Ibarrako Udalak beregain dituen eskumen batzu egikaritu gabe uzten dituela polizia gorputza eratu gabe daukalako; adibidez herri barruko trafiko eskumena.

Hau kontutan izanik, 4/92 Legean zedatutakoa aintzat harturik, polizia gorputza sortzeko eta Eusko Jaurlaritzaren alde aurreko baimena eskatzeko erabaki hau Udaltzari aurkezten dio.

Udaltzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA: Onartzea Ibarra Udalean Gorputz polizia baten sorrerarako izapidetu behar dena abian jartzea.

BIGARRENGOA: Eskatzea Eusko Jaurlaritzari, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 legeak, eskatzen duen aurretiazko baimena.

HIRUGARRENGOA: Akordio honen egiaztatzea dagokion espedientean gordetzea.

BOSGARRENA:

II. AASS EN BIGARREN ALDAKETAREN HASERAKO ONARPENA

Jose Manuel Soto jn.ak, Tailsaren izenean Apatta industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen bigarren aldatetaren haserako onarpena izapidetzeko agiria aurkeztu zion Ibarra Udalari.

Indarrean dagoen Bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen 2. Aldaketak, Apattaerrekaren eskualdeko industrialdearen zabaltzea ahalbidetzeko helburuari erantzuten zion, hain zuzen 18.1 (Tolosa) Ibarra lurra- deituriko azpideremua, lur hiritar ez finkatu gisa sailkatzearen bitartez. Horretarako ibarbidetaren behealdea bete behar zen betelanez, errekaostaren ibilguaren desbideraketa perimetrala egin eta GI-2130 errepidetik sarbideko lotura-erdia egin. Horregatik izan zen beharrezko 19.602 m² lur ez hiritargarri eranstea.

Orain, betelana egiteko lurra ezin direnez lortu eta hiritartze gastuak murriztu nahi direnez, Tailsak eskatzen du aldateta berri bat izapidetzeko non bazterten den GI-2130 errepidetarekin lotura-erdia egitea; horrela, eremuaren azalera 344.501 m² izatetik 335.452 m² izatera pasatzen da. Aipaturiko azalaren aldatetak berekin dakartza baita ere, doiketa txikiak Ibarra eta Leaburu arteko mugaketan.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 87 art.aren arabera, aldateta kasuetan hautazkoa da. Aurrerapena egitea, eta kasu honetan, aldatetaren arrazoiak aztertu ondoren, Ibarra udalak uste du ez dela beharrezkoa Aurrerapen agiria egitea.

Ingurumen tramitazioari dagokionez, 2015eko urtarrilaren 14an Ibarra udalak kontsulta egin zion Ingurumen eta Obra Hidraulikoen zuzendaritzari jakiteko ea Apattaerrekaren eskualdeko bigarren faseko planeamenduaren AASSen bigarren aldatetak behar zuen beste ingurumen eraginaren ebaluazio prozedura bat.

Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendari orokorrak, 2015eko maiatzaren 11n emaniko ebazpen bidez erabaki zuen ez zela beharrezko ohiko ingurumen ebaluazio estrategikorik, eta egindako azterketaren arabera ondorioztatzen zen ez zuela ingurumenean ondorio esanguratsurik eragingo. Edonola ere, aldateta txiki den honen garapenean, kontuan izango dira hauek: neurri zuzentzaile eta babes neurriak, EsECIA eta Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritzak eginiko txostenetan ezarritako gainbegiratze programa, hain zuzen, Apattaerrekaren zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen aldateta onartu zenean eginikoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udal arkitektoak lehen txostena egin du 2016ko otsailaren 17an eta ALDEKOA da. Dena den, alderdi batzuk argitzea eskatzen du eta horiek eskatzen dira otsailaren 18an.

Martxoaren 4ko hirigintza batzordeak Apatta industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen bigarren aldaketaren hasierako onarpenaren aldeko irizpena egiten du ondorengo baldintzarekin, eremua garatzeko beharrezkoa den Plan berezian eskatu diren gaiak kontuan hartzea eta bi hizkuntza ofizialetan idatzitako agiria aurkeztea.

Martxoaren 10ean gaztelerako agiri berria aurkezten da eta arkitektoak aldeko txostena egiten du aurreko txostenean argitzeko geratzen ziren puntual jasotzeko helburuarekin.

2016ko martxoaren 4ko Hirigintzaren Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Haserako onarpena ematea Apatta industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen bigarren aldaketari, ondorengoak betetzera baldintzatua geldituko da onarpena:

- Garatu behar den Plan Berezian kontuan izango dira:
Bidegorri bidez lotzea Apatta poligonoaren 2. Fasea eta Apatta kalea; gaur egun G2130Ako lotura den pista hobetzea, behin behinean industrialdeko irteera eta sarrera izan dadin; eta azpierrekuaren iparraldean egon baina Apattarreka-Ibarra eremukoak diren lurren urbanizazioa egokitzea.

BIGARRENA: Agiria jendaurrean jartzea; iragarkia GAOn eta lurraldeko hedapen handieneko egunkarietan argitara emanez hilabeteko epean azken argitalpenetik kontaktzen hasita, horrela agintzen baitu Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 90.5 art.ak.

Jendearrean jarri ahal izateko promotoreak gazteleraz eta euskaraz aurkeztu beharko du agiria derrigorrez.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea eskumen sektorialak dituzten herri administrazioei, hauek jakinaren gainean egon daitezen

SEIGARRENA:

BASO KUDEAKETARAKO BASERRI BIDE ETA BASO-BIDEEN ERABILERA LIZENTZIEN INGURUKO FITXATEGIAREN SORRERA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako udalak, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 legearen 20 art.ak eta otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarreko Legearen 18 art.ak xedaturikoa arabera, Baso Kudeaketarako baserri bide eta baso-bideen erabileraren lizentzien inguruko fitxategia sortu nahi du.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Sortzea II. eranskinean jasotzen den izaera pertsonaleko datuen fitxategia, Baso kudeaketarako baserri bide eta baso-bideen erabileraren lizentzien inguruko alegia.

BIGARRENA: Argitara ematea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabakiaren edukia, 15/1999 Lege organikoak 20.1 art.an ezarritakoa betez.

HIRUGARRENA: Jakinaraztea Datuen babeserako Euskal Agentziari erabakiaren edukia, urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak, 2/2004 Eusko Legebiltzarreko legea garatzen duenak ezarritakoa betez. Horrela, AVPD Datuen Babeserako Erregistroan inskribatuko da eta ondoren Datuen Babeserako Espainiar Agentziaren Erregistroan txertatu.

II. ERANSKINA

SORTU BEHAR DEN FITXATEGIA

Identifikazioa

Helburua

Arduraduna

ARCO eskubideak

Nori eragiten dion

Datuen jatorria

Biltze prozedura

Euskarria

Fitxategiaren egitura

Datuak lagatzea

Nazioarteko transferentziak

Segurtasun maila

Kokapena

BASO KUDEAKETA

**BASERRI BIDE ETA BASO-BIDEEN ERABILERA
LIZENTZIAK**

Ibarrako udala

Ibarrako udala

Eskatzailea

Interesduna edo legezko ordezkaria

Elkarrizketa eta inprimakiak

Papera

Izen-abizenak, tel., NAN, helbidea, posta elektronikoa

Ekonomiko finantzarioak eta aseguruak (banku datuak)

Beste datu batzuk: (egin beharreko lanei buruzko datuak eta pistaren erabilerari buruzkoak)

Ez da aurreikusten

Ez da aurreikusten

OINARRIZKOA

Informazioaren tratamendu sistemak eta udalaren artxiboa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZAZPIGARRENA:
GALDE-ERREGUAK

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko seiak eta hogeita hiru direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.